

216. zk.

Bigarren aroa

Urriak 31  
2013

Irungo  
euskarazko  
hamabostekaria

# Irunero

## Erreportajeak

*Katu hegoduna* komikia,  
made in Irun



## Kirolak

Mariño Kirol Klubak  
igotzea du helburu



Ramon Olaondo, Bidasoako erlezainen presidentea

## “Horrela segiz gero Asiako liztorrak erlea suntsituko du”

- 4 Hitz Gurutzatuen Txapelketa
- 5 Pio Baroja, elkarte berria
- 6 Tximeleten museoa, berriro irekita
- 8 Kirolak. **Pilota**
- 10 Haurren leihoa. **Eguzkitza LH**
- 11 Gurasoentzat. **Aberatsak gara!!!**
- 12 Gazteen lanak. **Toki Alai BHI**
- 14 Gazte informazioa

[www.irunero.com](http://www.irunero.com)  
Sar  
zaitetz  
web orrian eta  
Facebooken



**SANTYMAR**  
Bakailaoa betiko zapoareekin!!

ES  
12.06752/55  
CE

Egoitza nagusia:  
Bidasarre-Urader  
industrialdea  
Ventas, 45 - O eraikina,  
A-2 nabea- IRUN

Tel: 943 620391  
Tel. eta telekopia: 943 620690

bacalao@santymar.net  
comercial@santymar.net  
www.santymar.net

## Errealismotik surrealismora eta buelta



Yurre Ugarte

Aurtengo udako egun bero eta eguzkitsu batean, udak oharkabean bizi gintuenean, Hendaiko hondartzan marrazoen arrautzak azaldu ziren. Izan ere, marrazoen enbrioi edo arrautza horiek nik neuk eskuartearen izan nituen, beraz, zin dagit; hitzok ez dira haluzinazio baten ondorengoak. Gainera, ezinbesteko argazkia atera nien, marrazoen arrautzak aditu baten esku geratu zirenetan. Itsasoak zeruarekin bat egiten zuen puntura begiratuta, pentsamenduak aldegin zidan Ozeano Artikoraino: marrazoen enbrioiak Kantauri itsasoan badaude jada, antxoak Ipar Poloan izango dira laster, pentsatu nuen. Etorkizuneko marrazoen enbrioi haiek bainujantzi eta txankleten ohikotasuna irauli zuten bat-batean, ziurtatzeko, beste behingoz, errealismoa eta surrealismoa guztiz loturik edo nahasturik daudela. Askotan, arinki, surrealismoa identifikatu ohi baitugu soilik Daliren estrabagantziekin edota salbuespenezko erokeriekin. Halere, bizi dugun errealitate "ezagunaren" erabatekotasuna irauliko duten (edo aberastuko

duten, nondik begiratzen diozun) ezusteko gertakariak egunero suertatzen dira, une oro ez esateagatik. Muturreko adibide bat ipintze aldera, surrealismotik baino errealismo estranbotikotik gertuago dagoena akaso, bagoaz orain bertan gure gainean dugun hoheitzarren eskutik Madrilgo zerupean kokatzen den Audiencia Nacional-aren epaitegira, non duela aste-bete 35/02 auziaren makroepaiketa hasi zen. Auzi honen xehetasunen irakurketa zinez da trinkoa bezain harrigarria. Auzia ireki zenetik hamaika urte igaro ostean, epaiketaren lehenengo egunean, eta hasteko, epaile txit gorenek deliberatu zuten Askabide izeneko elkarte auzitik kanpo uztea. Askabide ez ei zen "herriko taberna" bat... Aaaaaa! Errealismoa edo surrealismoa? (ipini X bat aukeratutako hitzaren alboan). Ildo horretatik jarraituz gero, bukaerako makrosententzia behin-betikoan jarri beharko duten imajinario gaidosiak guztiok entretenituko gaitu halabeharrez, ze, izan alde bateko sententzia, izan beste aldekoa, ezin izango zaio ezabatu surrealismo antzu baten trazarik. Orobat traza horiek "tartaren" auzian ere egon badaude, nabarmen: Nafarroako presidenteari tarta bat jaurtitzegatik 5 eta 9 urteko kartzela-zigorra eskatu dute. Errealismoa edo surrealismoa?... (XX)... Enbrioietako marrazoak gure artean hazi dira eta nik Ipar Poloan bizi den antxo bat izan nahi dut.

## Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:

Ana Grijalba  
[agrijalba@irunero.com](mailto:agrijalba@irunero.com)

Kirolak: Naiara Hernandez Lekuona

Euskara zuzentzailea:

Xabier Kerexeta

Publizitatea:

Sonia Garcia Olazabal,  
Amaia Terrazas  
[sgarcia@baseclick.es](mailto:sgarcia@baseclick.es)

Argitaratzailea:

Baseclick S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua:  
SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 -  
20304 IRUN

Tel: 673 39 84 57

[www.irunero.com](http://www.irunero.com)

## Irun atzo Irun gaur



IUA: 40902

La Agricola atzo



La Agricola gaur

La Agricola jatetxearen erroak Urdanibia plazan bilatu behar dira, gaur egun Eskina taberna dagoen etxean, hain zuzen. Bertan, duela 60 urte baino gehiago Venancio Ayerbek ostatu bat zeukan. Aurrerago, La Agricola Urdanibia plazaren pareko aldera lekualdatu zuten. La Agricola jatetxe ospetsu bilakatu zen, bertan ematen zituzten otordu goxoak propio dastatzera Irundik kanpoko bezeroak autobusez ere etortzen ziren. Gaur egun orube huts bat besterik ez dago jatetxe

handia zegoen tokian. Plazako azken kokalekua goiko argazkian agertzen den etxea izan zen. Aldamenean beste Agricola bat zegoen: Nekazarien Etxea. Leku berean jarraitzen du, baina eraikin berri batean.

Argazkiko jatetxe-taberna 1977. urtean eraitsi zuten. Venancioren seme Victorrek eta haren emazte Pilarrek lekukoa hartu eta Altzukaitz kaleko etxe berrietan jarraipena eman zioten La Agricolari. Gaur egun Carlos Sagastizabal sukaldaria jatetxe zuzendaria da.

Anaka kalea, 11  
IRUN  
943.61.54.57

TABISA  
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49  
HONDARRIBIA  
943.64.54.57

BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

Honako erakunde hauek Irunero diruz laguntzen dute:



# “Neurriak hartzen ez badira, Asiako liztorrak erlea suntsituko du”

Ramon Olaondok 18 erlauntz ditu Behobiko Botenean. Inguratzen denean teniseko erraketa bat asiar liztorren aurkako arma gisa erabili ohi du. “Ez dituzte pakean uzten”, kexu da. Duela lau urte ikusi ziren Bidasoan lehendabiziko aleak. Kalteak zein kezkek handituz doaz. Erlezainek errotik suntsitzeko neurriak eskatzen dituzte.

## - Nola sartu da Euskadin Asiako liztorra?

Frantziatik sartu omen da, Asiatik Bordeleko portura egur kargamentu bat garraiatu zuen itsasontzi baten bidez. Egurrean gordeta zegoen eta handik zabaldu zen Ipar Euskal Herrira lehenik. Gaur egun Euskadin ez ezik penintsulan ere zabaltzen ari da espeziea.

## - Nolakoak dira eta nola jokatzen dute?

Ez dira autoktonoak baino handiagoak: bertako ale txikiak asiatico handien tamainakoak dira. Erleak ez bezala, ez dute loreetako nektarra xurgatzen. Fruituak eta proteina jaten dute; hortaz, erleak harrapatzen dituzte. Oso erasokorrek dira: eralauntzetan egon ohi dira, erleak noiz

“Kabiak suntsitzeko, bilatu behar dira, eta horretarako jendea behar da”

irtengo zain. Erleak elikatzen direnean, orduan hiltzen dituzte. Azkenerako erleak, erabat izututa, ez dira erlauntzati ateratzen. Horrela ziklo naturala hautsi egiten da.

Negua gordeta pasa ondoren, udaberrirako ernalduta daude. Ezaugarri nagusietako bat da oso azkar ugaltzen direla, kabi bakoitzetik 300-500 erregina ere jaio litezke eta.

## - Noiz iritsi ziren Asiako lehengo liztor aleak Bidasoara?

Duela lau urte ikusi genituen lehenak, harriduraz ikusi ere, ez

genekielako zer zen. Handik egun batzuetara jakin genuen iparraldean zegoeneko Asiako liztorrekin arazoak zituztela. Bigarren urterako, arazoa Bidasoan geneukan.

## - Eztiaren uztan eragina nabaritu duzue?

Bidasoan 5.000 kg ezti inguru produzitzen dira. Aurten kopuruak pixka bat behera egin du. Udaberria ohi baino euritsua goa eta hotzagoa izan da. Giro hori ez da erleentzat lagungarria; baina aldi berean, asiar liztorrentzat ere kaltegarria da.

## - Zer egin zenuten elkarteki-deok orduan?

Guk bakarrik ezin genuen ezer egin. Tranpak jarri genitue: garagardoa bidoietan sartzen da liztorra erakartzeko. Bertan itota hiltzen da. Dena

den, hori ez da nahikoa. Foru Aldundira jo genuen laguntza eske. Joan den urtean protokolo bat martxan jarri zen, suhiltzaileekin eta basozainekin batera kabiak bilatzeko eta kentzeko. Kabiak topatzea ez da erraza, oso gordeta egoten baitira. Gauzak oso ongi joan ziren.

## - Zer gertatu da aurten?

Protokoloa ez da aplikatu suhiltzaileekin akordioak ez zegoelako.

Beste sistema batekin probak egin dituzte: 14 metroko pertika batekin kabiak pozoitzean datza.

## Ramon Olaondo, Bidasoako Erlezainen Elkarteko presidentea



Ezkerretik hasita, Simon Telletxea eta Ramon Olaondo, abaraskak eskuetan dituztela.

Dena dela, kabiak bilatu behar da, eta horretarako jenderik ez badago...

## - Etorrizunari begira nola ikusten duzu buruhauste hau?

Kabiak horrela suntsitzea ez da nahikoa: produktoren bat behar litzateke liztor asiaticoa errotik desagerrarazteko. Horrela ezin dugu segi. Zerbait egiten ez bada, aukeratu behar da: liztorra ala erlea, biek ezin dute elkarrekin bizi.

Hasi dira jada mahastietan sartzen eta fruta zulatzen. Hor interes ekonomiko handiak daudenez, bada, agian arazo hori izan liteke erabateko eskuhartze baten eragile.



Asiako liztor bat eta aurtengo uztako eztiak, erlezainek Olaberrian duten elkartean.

## Olaizola

## Immobilari agentzia

- ✓ Salmenta Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585  
 info@inmobiliariaolaizola.com  
 www.inmobiliariaolaizola.com



## Irun, hitz gurutzatuen hiriburua

Azaroaren 23an Ola Sagardotegian Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen VII. Txapelketa jokatu da, Irungo LUMA aldizkariak antolatuta.

Hizki kontuetan iaioak diren hainbat bazterretako lagunak bilduko dira: batzuk, txapela eskuratzera, besteak, zaletasunaz gozatzera, eta guztiak egun ederra igarotzera.

Euskarazko hitz jokoan LUMA aldizkariak duela 13 urte lehenengo zenbakia plazaratu zuen. Irunen eta irundarrek egin den argitalpen honen 1.000 ale saltzen dira Euskal Herri osoan gaur egun. Hiru hilean behin zabaltzen da; 68 orrialde ditu eta, horietako 20, gazteentzako propio sortuak. Iñaki Agirresarobe hasieratik Lumako lankide izan da. "Luma sortu aurretik euskal aldizkari zenbaitetarako hitz jokoak prestatzen genituen. Aldundiak lagunduta, bilduma bana lantzea erabaki zuten. Orduan pentsatu genuen: hor bada merkatua, eta Euskal Herrian ez da horrelako produkturik".


Hainbat herrialdetan hitz gurutzatuen lehiaketak tradizio handikoak dira; tartean, Frantzia, Belgika eta Estatu Batuetan. Espainian, berriz, ez da halakorik antolatzen. "Behin aldizkaria finkatu ondoren, lehenengo txapelketa prestatzea pentsatu genuen", azaldu du Iñakik. "Euskal Herri osoko zaletuak etorri zirela ikusita, bada, segida ematea erabaki genuen".

### Txapelketa

Parte-hartzaile gehienek "txapela lortzea ez den beste helbururen bat" dutela dio Lumako lankideak. "Marka hobetzera edo, besterik gabe, zaletasunaz gozatzera datozela esan liteke".

VII. edizioa jokatu da aurten. Guztira 40 bat lehiakidek hitz gurutzatuetako lauki guztiak betetzea izango dute erronka. Behin parte hartzen hasiz gero, "lehiakideek urtero izena ematen dute txapelketa itzultzeko". Lau baizik ez dira finalera iritsiko. Jendaurrean jokatu da, kubo bat osatzen duten arbel moduko paneletan. Irabazleak 350 € eskuratu ditu; bigarrenak, 225; hirugarrenak 120; laugarrenak, 60; finalurrera igarotzen direnak, 20, eta gainontzekoek, oroigarri bana.

Irabazi ala ez, zaletuek egun borobila pasa ohi dute. Behin Txapelketa amaitu eta urduritasuna astinduta, Olan bazkari ederra zain dute, baita bazkalaosteko giroa ere. Txapelketak Irungo Udalaren babesu dauka eta Ola zein Kalitatea laguntzaile dira.



Goian ezkerrean, iazko txapelketako finala Ola sagardotegian. Goian, aurtengoaren kartela.

### Aurtengo txapelketa



Iazko lehiaketako kanporaketaren irudi bat.

Lehiakideak goizeko 9:30ean Ola Sagardotegian bilduko dira, eta 10:00etan kanporaketa saioak hasiko dira. Hiztegi-liburuak erabili ahal izango dira; ez, ordea, ordenagailua. Taulako lauki guztiak bete behar dituzte lehiakideek. Aintzat hartuko den lehen irizpidea eginiko akatsen kopurua izango da. Probak agindutako epean bukatzea ezinbestekoa da.

12:15ean finalurrekoa jokatu da. Aurreneko lau postuetan sailkatzen direnak finalera igaroko dira.

13:15ean finala jendaurrean jokatuko dute, zutik, hartara paraturiko paneletan.

Bertan bazkaltzeko aukera dago, 20 €ren truke. Bazkalondoan sari-banaketa egingo da. Girotze lanetan bertsolariak, trikitalariak... arituko dira.

**Izen-emateak:** Azaroaren 20ra arte, baina txapelketa egunean bertan ere egin daiteke. 25 € ordaindu behar dira. LUMA aldizkariako harpidunentzat, dohainik.

[xedera@xedera.com](mailto:xedera@xedera.com)

# Pio Baroja elkarte berriak ezbaia sustatu nahi du

Nor bere posizioan gotortua, elkarrengana oldartzea eta arerioa mendean hartzea da azken buruko jomuga. Halaxe ikusten ditu Pio Baroja elkarte berriak debate publikoak zein informalak. Eraitza gerra antzu bat da.

Eztabaida aberasteko jaio da elkarte, eta horretarako hitz bat giltzarriztat jotzen du: elkarrizketa.

Hilero debateak antolatzen hasi da.

Duela zenbait hilabete Irungo hiritar talde batek "Elkarrizketa-rako eta debaterako Pio Baroja Elkarte" sortzeko erabakia hartu zuen, "adostasuna bilatzen ez duen hainbat gai debati-tzeko modu garrantzak" bultzatuta.

Jose Julian Escalero elkartekide-aren iritziz, "ezberdinak gabela onartu behar dugu lehenik eta behin, eta, ondoren, aurrean dugun pertsonaren arrazoiak zein sentimenduak ulertzen saiatu behar dugu".

Kezka hori dela eta, gai batean "elkarrizketa ardatz izaki, zertan gatozen bat mahai gaineratzeko topaketa publikoak antolatzeari ekin diogu". Bertan hiritarrak, elkarte profesionalak, politikariak, sindikalistak eta mota guztietako kolektiboak interes orokorreko kontu bati buruz ari-tuko dira. "Ez dugu erabateko adostasuna bilatzen, baina gu-txienez zertan egiten dugun bat azaleratu nahi genuke", zehaztu du Jose Julianek. Bere aburuz, "eredua erakundeetara eraman beharko litzateke".

#### Lehenengo topaketa

Topaketak Atalaia jatetxean egi-

ten hasi dira jada. Lehenengoa joan den urriaren 24an burutu zen. Formula beti berbera izango dela adierazi du Jose Julian Escalero. "Lehenik, afaldu egiten dugu, 15 €ren truke, eta behin pixka bat elkar ezagututa, bi hizlarik azalpenak ematen dituzte. Azkenik, solasaldi publiko-koa irekitzen da. Moderatzaile lanetan, herriko hedabide bateko kazetari bat dugu".

Aurreneko saioak galdera bat izan zuen izenburutzat: Zer gertatuko da zaborrekin 2015etik aurrera? Ekologistak Martxaneko Kepa Olaiz eta Denis Itxaso Donostiako Udaleko zinegotzia hzilari izan ziren. "Errauskailua, gaikako hondakin-bilketa, eta abar izan ziren mintzagai. Azalpenak entzun ondoren, inork ez dakiela zer gertatuko den ondorioztatzen da", dio Escalero. "Ematen du bakoitzak bere aukera egin duela eta nor bere bere posizioan gotortuta dagoela". Behinik behin, Pio Baroja elkarteak bere helburua lortu duela azpimarratu du Escalero: elkarrizketa.

[asociacionpiobaroja@dialogodebate.org](mailto:asociacionpiobaroja@dialogodebate.org)



Jose Julian Escalero elkarteko kideetako bat da.

**BAINU**

## Aldatu zure bainera dutxa batengatik

*Berrikuntza txiki bat, egundoko aldaketa*

Zure bainera egungo dutxa talde batengatik aldatzen dugu.

**¡Guztia 2 egunetan!**

*Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe*

Pelegrin de Urazu, 9 (Urdanibia plazaren ondoan) - 20304 Irun

943 615 184 - 687 572 920

[bainu.irun@gmail.com](mailto:bainu.irun@gmail.com) - [www.bainu.eu](http://www.bainu.eu)

Zarautz hiribidea, 86 - 20018 Donostia

943 561 652

**BAINU**



Manuel Aguirresarobe.

# Hegodun bitxiak

Tximeleten Museoa berriro irekita dago, Irungo Udalak egin dituen hobekuntza lanak bukatuta.

2008an krisi ekonomikoak jo aurretik, Irungo Udalak Palmera-Monteroko lokal handi bat egoitu zuen bertan Tximeleten Museoa kokatzeko. Kinka ekonomikoaren ondorioz, proiektu museistikoaren behera uztea erabaki zuen, 400.000 euroko inbertsioa eskatzen baitzuen. Tximeleten erakusketak Larretxipi kaleko egoitzan jarraitez, ordea, beharrezkoak ziren zenbait lan, tartean, argiztapena aldatzea. "Argi hotzak jarri ezean, 10 urteren buruan bilduma hondatuko zen", azaldu du tximeleten jabe Manuel Aguirresarobe entomologoak. Berrikuntzak egin ostean, museoa irekita dago bueltan.

## 7.000 aleko erakusketa

Manuel Aguirresarobe irundarra ia bizitza guztian tximeletak biltzen eta aztertzen aritu da. Halaxe, 7.000 aleko bilduma paregabea osatzea lortu zuen.

Manuel, 14 urte zituela, intsektu hauek harrapatzen hasi zen bere etxe inguruan, Lapitzeko Egi-luze baserrian, alegia. "Koloreak eta edertasunak erakarri ninduten. Munduko intsekturik ederrena dela esaten da", dio Manuelek, tximeletek ere bera harrapatu zutela gogoratzean. "Egun batez, tximeletek nola ehizatu eta kontserbatu behar ziren azaltzen zuen esku-liburuxka bat iritsi zen etxera, eta halaxe ikasten hasi nintzen".

Une ahaztezina du, ehizean ari zela, Isidro Odriozola irakasle jesuita topatu zueneko. "Nire irakasle bilakatu zen. Aranzadirako ikerketak egiten

laguntzen nion".

Udan penintsula guztia korritu ohi zuten hegaldun bitxiak sareratzen. Bilduman duela 40 urteko aleak ere baditu. Manuelek argi utzi nahi du gehienetan helburua ez dela tximeleta hiltzea, baizik eta aztertzea. "Horretarako, anestesiatzen da segundu batzuek". "Orratza sartzen zaie hilda dagoenean, hegaletako hautsa ukitu gabe manipulatua ahal izateko".

## 5 kontinenteetako tximeletak

Mundu zabaleko tximeletak bildu ditu Manuelek Larretxipi kalean. Europakoak, denak berak harrapatutakoak dira; gainontzekoak, elkartrukeen bidez eskuratutakoak, unibertsitateekin eginikoak batik bat.

Bisitariet, erakusketaz gain, dokumentala ere ikusten dute, non intsektu hauen bizitzaren eta garrantziaren berri helarazten zaien.

Itxura eder bezain bizitza iragankorra dute. Manuelen esanetan, "eme batzuk egun bat edo bi baizik ez dira bizi, arrak baino lau zapabost egun goiago jaiotzen direlako". Bizitza laburrean zehar lan asko eta berebiziko garrantzizkoa dute; izan ere, loreen polinizatzaile nagusiak dira erleen atzetik.

Manuelek ez du amaitutzat jotzen bilduma. Museoan dauden ale guztiak egunez hegan egiten duten espezieak direnez, bada, "orain Irunen aurki daitezkeenena eta gauez hegan egiten dutenena osatzea dut jomuga".



Goian, Amazonaseko ale sorta bat eta Melanesiako beste bat. Eskuinean, Irungo bi ale, 15 cm-koak, Europako handienak. Behean, Buzurraren Esfingea deiturikoa, sorbaldan burezur baten irudia duelako.



## Bidasoan 6 espezie desagertu dira

Bidasoan sei espezie desagertu direla egiaztatu du Manuel Aguirresarobek. "XX. mendearen bukaeran bertako basoak murriztu eta kanpotik ekarritako koniferak landatzen ziren, azkarrago hazten direlako. Baina hemengo tximeletek elikatzeke bertako zuhaitzak behar zituzten. Beste ondorioetako bat izan zen pinuek bere-berezko duten izurritea, prozesionaria, agertu zela. Fumigazioek intsektu kaltegarriak eta onura-

garriak ere hiltzen dituzte, beraz..."

Europan ere tximeleta-populazioak sekulako triskantza jasan du. "Espezieen %50 desagertu dira ekosistema aldaketaren eraginez".

Etorkizunari begira itxaropentsu egoteko moduko aldaketak ematen hasi dira.

"Zorionez, lur publikoen inguruko politika aldatzen ari da, hau da. Pinuak zeuden eremuetan orain espezie tradizionalak landatzen dira".

# K-Stretch: giharretako tentsioak arintzeko metodo berritzailea, Irunen

Danilo Barzio kirolari profesional ohiak, berreziketaren posturalaren alorreko formakuntza jasotzen ondoren, K-Stretch metodoa sortu zuen: postura txarrekin eragiten dituzten giharretako tentsioak askatzeko ariketak. Hartara, hamaka berezi bat diseinatu zuen. Osasunaren gero eta profesional gehiagok baliatzen dute metodo berria.

## - Gutxi mugitzen gara gaur egun. Zer ondorio dakar?

Oro har, helduek zein hurrek jardura fisikoa gutxi egiten dute. Gaur egungo bizimodua antifisiologikoa da. Ondorietako batzuk dira gihar-hezurduretako oinazeak ditugula, gorputza gogortua eta handitua sentitzen dugula, uzkurdurak kroniko bilakatzen direla...

## - Zer hobetu dezake K-Stretch metodoak?

Propio arazo hauetarako sortua da. Helburua giharren tentsioak orekatzea da, baita postura, artikulazioen mugikortasuna eta giharren elastikotasuna hobetzea ere. Gorputzaren luzaketa orokorra egiten da. Labur azalduta, bizi-kalitatea hobetzen laguntzen du.

## - Ariketak hamaka berezi batean egiten dira. Zein dira ezaugarriak?

K-Stretch hamakak gorputza bi plano mugikorretan jartzeko aukera ematen du: enborra eta besoak batean, zangoak bestean. Pertsona bakoitzak hamaka batean jarduten du. Bi planoen angelua aldatzen denez, norberaren ahalmenen arabera luzaketa egiten da, sufritu gabe.

Hamakaren beste ezaugarri nagusia da gorputza postura egokian mantentzen duela K-Stretch saio guztian zehar; horregatik, lana oso eraginkorra da.

## - Nola sentitzen da jendea saio baten ondoren?

Saioa hasi aurretik eta amaitutakoan nor bere test posturala egiten du. Ikasleek honela sentitzen direla diote: arinago, tenteago, malguago, hobe mugitzen dira... Saioaren ondoren jendea eguneroko zereginetara egoera fisiko hobean bueltatzen da, energia eta animo handiagoarekin.

## - K-Stretch metodoa edonork egin dezake?

Edonorentzat gomendatuta dago, baita kirolari onenentzat ere. Giharrak malguagoak dituenak zuku guztia atera ahal dio K-Stretchari.

## - Zein dira klaseen ezaugarriak?

Kineesis Zentroan taldeko eta banakako saioak eskaintzen ditugu. Taldekoak astean 50 minutukoak dira. Banakakoetara edonork etor daiteke, baina arazo espezifikoak dituzten bezeroak izaten dira nagusiki.

## - K-Stretch metodoa zabaltzen hasia da?

Bai. Osasunaren eta jardura fisikoaren profesionalen zuzendutako eskola sortu nuen eta jada Euskadin, Bartzelonan, Asturiasen eta Kantabrian aplikatzen da, besteak beste.

## - Zer gehiago eskaintzen du Kineesis Zentroak?

Gimnasia abdominal hipopresiboa, pilatesa eta haurdunentzako pilatesa.

## Danilo Barzio, Kineesis Zentroko zuzendaria



Talde bat K-Stretch saio batean.



- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT

www.kineesis.net      www.k-stretch.com

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe, IRUN. 943 626 983 - 606 298 640



Banakako saio bat.



Goian, Gorka Pablos (1.goa ezkerretik) eta Ander Montserrat (1.a eskuinetik), entrenatzaile eta taldekideekin. Behean, Olako txapelketa.

## Esku-pilota, Bidasoan pixkanaka suspertzen ari den kirola

Ramuntxo Trinkete Klubak 1995ean ekin zion bere ibilbideari esku-pilota eta palaren munduan. Harrez geroztik, taldeko pilotarietara garaipen oso garrantzitsuak lortu dituzte; hala nola, Euskal Herriko edo Iparraldeko txapelketak. Etorkizunera begira, gazteek hain gurea den kirol hau bizirik mantentzea dute helburu nagusi.

Pala eta larruzko pilota eskuan hartuta egiten didate harrera Ander Montserratek eta Gorka Pablosek. Laugarren geratu dira orain dela egun batzuk Uruguain jokaturako 22 urtez azpiko Munduko Trinkete Txapelketan. Emaizta gazi-gozoa izan da irundarrentzat, hirugarren postua eskuekin ukitzeko zorian egon

baitziren. Hala ere, hoberenen kontra lehiatzea aukera izugarria izan dute. "Oso esperientzia positiboa izan da. Munduko jokalaririk onena den Facundo Andreasen argentinarraren kontra aritzea opari bat da" dio Ander Montserratek, irribarretsua. "Inoiz partidu bakar bat galdu ez duen bikote baten aurka aritzea

oso zaila da, baina pozik gaude. Hurrengoan domina eskuratuko dugu" gehitu du Gorka Pablosek.

Txikiak zirela erakarri zuen trinkeak bi kirolari gazte hauen arreta. Anderrek aita eta aitona jokatzeko ikustean sentitu zuen lehendabiziko tantoak egiteko irrika. Aurreneko egunean ez zen bakarrik egon, Gorka gelakidea diziplina probatzeko konbentzitu zuen eta.

### Bultzatzeko ekimenak

Bi gazte hauen kasua ez da oso ohikoa gure inguruan. Enrique Moron Ramuntxo Trinkete Klubeko esku-pilotaren arduradunak dioen bezala, "Irungo kirol eskaintza oso zabala da eta, nahiz eta oso gurea den kirola eskaini, gazte gutxi erakusten dute interesa esku-pilota eta paleta diziplinak probatzeko". Hala ere, azkenaldian kirol tradizional hau

eskoletara hurbiltzeak eta *Atalaia* deituriko ikastetxeen arteko txapelketa antolatzeak ondorio positiboak izan dituzte. "Eskola kirolari esker 200 bat ume frontoira gerturatu ahal izan ditugu, eta Atalaia Txapelketan 31 haurbikote lehiatzen ikusteko aukera ere izan dugu. Gainera, horietatik 14k gurekin jarraitu dute" azaldu du Enrique Moronek, kontent.

### Kirol egokituko sekzioa

Horretaz gain, orain dela lau bat urte, kirol egokituko sekzioarekin hasi zen Ramuntxo Trinkete Kluba. Atzo izan balitz bezala gogoratzen du Enriquek: "Gure biler batera etorri zen emakume baten proposamena izan zen, eta ondo aztertu ondoren baietza eman genion. Minusbaliotasunen bat dutenekin solasean aritzea primerako esperientzia da. Gainera, lehiakortasunaren gai-

netik beste balio garrantzitsu batzuk badaudela erakusten dituzte". Esperientzia errepikatzen asmoz, federazioarekin batera kaptazio programa bat abian jartzekotan daude.

Bestalde, gaur egun kluba osatzen duten 70 bat kirolariren kopuruak gora egitea nahi dute klubekoek. Esku-pilotaren eskolako arduradunak oso argi dauka: "ezin dugu hain gurea den kirola galtzen utzi, eta hori lortzeko ezinbestekoa da gazteen, bai nesken bai mutilen kolaborazioa eta inplikazioa lortzea, etorkizuna beraien esku baitago". Gauzak horrela, bizitasuna eta kontzentrazioa uztartzen dituen kirol honetan lehen urratsak eman nahi izanez gero, Artiako Ramuntxo Trinketeko atea zabal-zabalik daude.

### Mugaz gaindiko aholkularitza

**MyL mugan**  
aholkulariak

**Ficoba**  
Iparralde  
hiribidea, 43.  
IRUN  
t 943 537 720  
f 943 116 014  
m 649 014 096  
[www.mylmugan.com](http://www.mylmugan.com)



T. 678 617 907  
[mgrotulos@gmail.com](mailto:mgrotulos@gmail.com)  
**Pedro Manuel**  
Aristegui kalea, 12  
IRUN



# Igoera da Mariño Kirol Klubaren aurtengo denboraldiko helburu nagusia

Kategoriaz igotzeko lehian guztiz sartuta daude gizonezkoen Erregional Preferente mailan eta emakumezkoen Euskal Ligan jokatzen duten bi taldeak. Nahiz eta mutilek pare bat estropezu egin, puntu asko geratzen dira jokoan eta, oraingoz, aukerek beren horretan jarraitzen dute. Neskak, berriz, oso bide onetik doaz aurreko denboraldi bikaina errepikatzeko.

Emaitzek argi uzten dute Mariño Kirol Kluba ondo hasi dela aurtengo denboraldian. Irungo eta Bidasaldeko erreferente bihurtu den klub honek 1991ean eman zituen lehendabiziko urratsak, gaur egun presidentea den Javier Mariñoren eskutik. Hasieran talde bakarra zuen klubak, baina bost urteko epean bost talde izatea lortu zuen. Gaur egun, Mariño Klubak gizonezkoen 8 talde eta emakumezkoen 6 talde ditu. Horretaz gain, 8 eta 12 urte bitarteko 120 bat neska-mutil ditu bere Futbol Eskolan. Nahiz eta klubak jokalaria ugari izan, talde pare bat osatzeke daude oraindik. "2000-2001. eta 2002-2003. urteetan jaiotako neska gazteen bila gabiltza, haur kategorian eta alebin mailan ari daitezten" dio klubeko presidenteorde eta koordinatzaile orokor Juan Mari Larretxeak. "Mutilekin ez bezala, neskekin gorabeherak izaten ditugu. Urte batzuetan neska askok ematen du izena futboleko aritzeko. Beste urte batzuetan, berriz, oso gutxi dira gugana hurbiltzen direnak", gaineratu du Larretxeak.

## Nesken aldeko dema

Datuen arabera, emakumezkoen futbola gora egiten ari da urtetik urtera, eta Mariñok neska gehien dituen hirugarren talde gipuzkoarra da. Hori lortzeko, arantaz beteriko bidea zeharkatu behar izan dute irundarrek. Klubeko presidenteordeak dioen bezala, "emakumezkoen lehendabiziko taldea orain dela 10 bat urte sortu genuen, Berako Gure Txokoa taldea gure azpiegituretan integratu genuenean". Bost urtez talde bakar horrekin aurrera jarraitu ondoren, harrobiaren aldeko apustua egin zuen klubeko zuzendaritzak: "Oinarritzko kirola sustatzea oso garrantzitsua iruditzen zitzaigun eta, ikusten denez, apustua ona izan zen".

## Helburua, nesken garaipena

Aurtengo denboraldian Euskal Liga mailan aritzen diren neskak Espainiako Ligara igotzeko gogorki lehiatuko dira. Aurreko urtean jada lortu zuten igotzea, baina egin beharreko desplazamendu luzeek ezinezko egin zuten igoera hura. "Aurreko

denboraldian bigarren geratu ginen; hori dela eta, galiziar eta madrildar taldeekin lehiatzea tokatzen zitzaigun. Aurtengo helburua lehendabizikoak gertzea da, Nafarroako, Errioxako, Aragoiko, Kantabriako eta Euskadiko taldeekin lehiatu ahal izateko eta desplazamenduak motzagoak izateko" dio baikorki presidenteordeak.

Gizonezkoen dagokionez, helburua ere igoera lortzea da. Ligaren hasiera ona izan dute Mariño Kirol Klubeko kategorien gorenako mutilek. Hala ere, liga luzea da eta esfortzu handia egin beharko dute igotzea lortu ahal izateko.

## Informazio gehigarria:

- Web orria:  
[www.cdmariño.org](http://www.cdmariño.org)  
- kontaktu telefona:  
637.190.862 (Ángel)

**Goian, Kadete mailako neskak. Erdian, 1. A mailako haur-kategoriako mutilak. Behean, haur-kategoriako txikiak.**





**ARGITZE ZENTROA**

TITULUDUN  
PROFESIONALA  
Santago, 51  
IRUN  
635 703055

- Tajlerak hirugarren adinakoentzat
- Atsedenaaldia zaintzaileentzat
- Gehenez 4 ordu egunero (goizez eta/edo arratsaldez)
- Namiadura kognitiboa golditza eta prebentzia
- Trebekia mentalen eta sozio-emozionalen indartzea

## Hezteia jomuga

Hasieratik Mariño Kirol Klubaren helburua oso argi egon da. Jose Mari Larretxeak ere oso argi dauka: "gure helburu nagusia umeak eta gazteak pertsona bezala hezten laguntzea da, eta, kirol arloari dagokionez, poliki-poliki hobetzen laguntzea". Primeran zaintzen dituzte umeak eta gaztetxoak taldean; izan ere, asteburuoro partidak bukatutakoan bokata eta edari bana ematen diete musu-truk. Javier Mariñok taldea

sortzean martxan jarri zuen ekimenak bizirik jarraitzen du gaur egun. "Asteburuoro 250 bat bokata prestatzen dituzte taldeko bolondresak. Goizeko 7:30etik 9:30era bokatak prestatzen aritzen dira eta horrek meritu handia dauka" baieztatzen du Larretxeak. Zalantzan daudenek badakite Mariño Kirol Klubean primeran zaintzen dituztela euren jokalaria.

## Eguzkitza LH

**IPUTINA**

URT XOREN ANAIA

Bazen berrin zanta bat Urtxor zemeakoa. Egum batean bere amak esan zian:

- Urtxor gudei berru amara bat edukika duzu.
- Eta Urtxorak kanten erantzun zian:
- Bai, bai, bai amara txiki bat!

Orduan amaiaren izenari buruz hitzegin zuten, eta askenon Urtxor dentu zuten. Eta amara jai zenean egum bakesuk geroago, Urtxor kanturatu zen pika bat malaratzen zuela. Urtxor ibai batera jaan zen eta bat batean lakan gendatu zen eta esmatu zenean gar egaeran zegaen eta ardu batesuk <sup>berandugo</sup> euria berritu zen. Etxera bueltatu zenean bere amari bere abentura kontatu zian eta ara anda eraman ziren.

IZENA: Landa Zaballa Data: 2013/6/14

# Jostamendi



www.jostamendi.com

- Jostailuak
- Mozorroak
- Motxilak

JOSTAILU GUZTIAK:  
MODAKOAK ETA KLASIKOAK  
SALNEURRI MERKEENAK  
Prim, 59. Tel: 943 455300 Donostia  
Letxunborro, 86. Tel: 943 457510 Irun

- Puerikultura ttikia
  - Paseatzeko sillitak
  - Sehaskak
  - Haur kotxeak
- GIPUZKOAKO  
ERAKUSKETARIK HANDIENA  
Easo, 51. Tel: 943 470244 Donostia  
Artaleku, 3. Tel: 943 638223 Irun



Zure jaioberria  
zaintzen dugu

# Aberatsak gara!!!



## HEZKUNTZA ERREFERENTZIA:

Gure inguruan dauden haur eta gazteekin gaudenean, ederrak direla sentitzen ditugun momentu guzti horietan gelditu eta haiei kontzientzia hartzen lagundu:

### GIZAKIOK KREATIBOAK GARA!!!

Ongi pasatzeko edo ongi sentitzeko modu asko daudela azaldu; marrazki bat egin, material desberdinekin eskulanetan libreki esperimentatu, istorioak sortu, jolastu eta mundu magikoetara bidaiatu egin... Gu gara eredu, ikas dezagun guzti horretaz gozatzen eta bila ditzagun tartek gure haurrekin ariketa hauek egiteko

**NATURAN ETA INGURUAN DITUGUN EDERTASUNEN KONTZIENTZIA EMAN;** haur eta gazteekin naturaz gozatzeko planak antolatu, momentu batean begiak ixtera animatu eta gero zer sentitu (usaindu, entzun...) duten aipatzea; eta gauero eguneko gauzarik ederrena zein izan den galdetu...

Aurreko atalean azaldu bezala, balio positiboetan hezteak ez da beti erraza izaten; baina guraso eta irakasleok gogoan eduki behar dugun erreferentzia da, gure ingurukoek edertasunean eta zoriontasunean bizitzea nahi badugu. Aurreko atalean zenbait balio landu genuen: laguntasuna, familiaren baldintzarik gabeko maitasuna, ematearen eta jasotzearen indarra. Oraingoan, aldiz, pertsonaren ongizate eta osasun emozionalerako garrantzitsuak diren beste balio edo aberats sentitzeko moduak ikusiko ditugu:

### • ABERATSAK GARA IRUDIMENEAN:

Gure irudimena zabala da oso, pertsonok sortzailak baikara, kreatzaileak. Hamaika gauza atsegin egin dezakegu; ipuin bat sortu, istorio barregarriak eraiki, marraztu, material ezberdinekin eskulturak edo eraikinak sortu, collageak egin, mundu magikoekin amets egin, antzerkiaren bidez pertsonaia desberdinak irudikatu, mozorrota eta leku ezberdinetara bidaiatu, jolastu eta plazerpean sentitzen dugun guztia askatu... Teknologia nagusi den gizarte eredu honetan, zoriontasun iturri honen balioa edo garrantzia azpimarratzea funtsezkoa zaigu. Sortzen ditugun gauza txiki hauek, egiten duguna modu gozagarrian egitearen kontzientzia hartzen badugu,

aberats bilakatzen gaituzte, aberats irudimenean. Gure irudimena sor dezakeen emaitza ez da bakarrik gozamenera mugatzen; alegia, zerbait sortzen ari garen bitartean sentitzen dugun ongizatea, lasaitasuna edo edertasuna ere zoriontasun eta oreka emozionalaren iturri da.

Bestalde, kreatibitateak gizartearen pairatzen ari den krisitik ateratzen laguntzen digu, bai produktu edo lan berriak aurkitzeko, bai ditugun gauza materialei beste baliabide bat emateko. Teknologia berriak edukitzeko dirurik ez dugula?? Goza dezagun gure kreatibitateaz eta sortzeko ahalmenaz!!!

### • ABERATSAK GARA PRESENTZIAN:

Oraina sentitzen dugu, momentuaz gozatzen dugu. Presentzia inguratzen gaituzten fenomeno berehalako kontzientzia da, kontzientzia fisiko, emozional eta mentala. Gure inguruko gauzen kontzientzia hartzen trebatu behar dugu bertan egoteko ahalmena garatzen. Tarteka gelditu, eta argazki kamara batean argazkia aterako bagenu bezala, gure inguruan eta gure sentimenduetan arreta ipini. Ikuspegia edo ikusbegia zabaldu, dugunaz ohartzen garenean zoriontsu sentitzen garelako. Gaur egun daramagun bizimodua ikusirik, ezinbesteko ariketa zaigu gelditzeko tarte bat hartu eta nola gauden ikustea, gure

inguruan dugun edertasun horretaz ohartzeko: irribarre bat, maitasun sentimendu bat, elkarrizketa bat, lore baten edertasuna...

### • ABERATSAK GARA NATURAN:

Gure arbasoak naturan bizi izan dira milaka urtetan zehar eta gure izateak (gure senak) naturarekin kontaktuan jarraitzea bilatzen du. Batzuek parkean, besteek hondartzan edo mendian, baina naturarekiko lotura bilatzen dugu. Aberatsak gara naturan eta honek ematen digun ongizate sentsazioan; beraz, aprobeitza dezagun eta bila ditzagun aukerak natura zaindu eta harekin bat egiteko. Naturan gaudenean senti dezakegun presentzia zoriontasun iturri zabala da; une bat hartu, gelditu eta itsasoaren zabalatasunaz, zeruaren marrazki eta koloreez, paisaia edo lore baten edertasunaz gozatzea...

Aberats sentitzeko hamaika aukera dago, gelditu eta haren kontzientzia hartu besterik ez dugu egin behar. Izan zoriontsu maitatuz, maitasuna jasoz, laguntza eman eta laguntza eskatuz. Bai eta naturak, kreatibitateak eta inguruak ematen digun edertasunen kontzientzia hartuz. Sarri arte!!!!

MAPI URRESTI ORTIZ

[kuttun@kuttun.net](mailto:kuttun@kuttun.net)



- Indoor zikloa
- Tonifikazioa
- Pilates
- Step
- Zumba
- Muskulazioa

- Karatea: haurrak/helduak
- Tai chi
- Defentsa pertsonala
- Kick boxing
- Brasiliar Jiu Jitsu

## amestu nahi?

Kaixo,



Ametsak. Azken k horretara iristerako jada desagertu diren hitz eztiak. Sentimenduen errusiar mendi bortitz batean, gorenean zaudenean kolpez lurrera jaitsarazten gaituztenak.

Zenbat ostadar eratu dituzte nire masailetan? Zenbat malko eta irribarrezko ostadar? Nire logelako paretetan zintzilik ditudan oroiemenen itzalpean egiten dut lo, begiak itxirik berriro itzul daitezzen desiratuz.

Amesten dudanean, izarren alboan eseritzen naiz, Unibertsoaren taupadak sentituz gauaren abestia entzuteko irrikatan. Egunsentian, malko hotz baten dardara sentitzen dudanean, zeruan igeri egin nahi dut, putz egin eta hodeiak nahiz arazoak baztertu.

Amesten dudanean, udako haize epelak belarrira xuxurlatzen dit ez dagoela mugarik irudimenaren mundu amaigabea, borrokatuz dena lortu daitekeela, argia itzaliz gero kandela bat piztu dezakegula.

Goizeko hozkirria, urmaelaren zilarrezko eratzunak, hosto odoltsuaren kulunka, lore batean ipinitako ur-tanta distiratsuak, isiltasunaren barrenean gordetako sekretuak, begirada bero batek eragindako hotzikara, suaren laztana kiribiltzen diren makiltxo zaharretan, azken besarkadaren negar itoa... Sentitu, maitatu, gogoratu, sufritu, gozatu, fal-

tan bota... Bizitza egun bat da, eta ahal duzun guztia egin egun hori ahaztezina izan dadin. Bost axola gainerakoan iritzia, bizi eta bilatu bizirik mantentzen zaituzten ametsak.

Amestu nahi baduzu, beldurrak alde batera utzi, eta munduaren arnasa azalean sentitu, hiriaren oheratzea ikusi, euria eskuekin hartzen saiatu, inoiz esan ez duzuna esan, neguko hotzaren zirrara maitatu, udaberriko koloreak usaindu, gauza hoberenak ederrak izateko amaitu behar direla ulertu, ilargia ukitzeko ahalegina egin, zure akatsen jabe izan, udazkeneko argi-izpi urrekarak margotu, abesti ezkutu hori bakardadean kantatu, zure isladaren laguna izan, itsasoaren suspirioetan hegan egin, beti zure barruan gordeko dituzun hitz politikak dastatu, lokartu arte negar egin, ez inoiz ahaztu nor zegoen zure ondoan mundua iluna zenean, galderak bilatu, erabaki zailak hartu, ispiuarekin hitz egin, magian sinetsi, txikitari horrenbeste maite zenituen ipuinak irakurri, eta ordutik aldatu den guztiaz ohartu, eskutitzak idatzi, lanbroan murgildu ...

Eta, batez ere... Amestu...

Amestu nahi?

Nahia Perez de San Roman  
Toki Alai BHI

## PANIKOAREN BOTOIA: WINDOWS 8.1



Batzuetan, diseinuaren xehetasun txiki bat aski izan daiteke publizitatean eta irudian xahututako milioiak alferrik galtzeko. Ondotxo dakite hori teknologiaren guru handiek; hala nola, Apple-ko buru Steve Jobs zenak,

estu eta larri baitzerabiltzan diseinatzaileak, harik eta dispositibo baten erabilera-arazoa konpontzen zuten arte, hartara, adibidez, ikono baten itzalaren belztasunaren ñabarduraz.

2012ko urrian abiatu zen apusturik interesgarrienetako bat, aspaldi honetako sistema operatiboetako dagokienez: Windows 8.

Telefonoaren, tabletaren eta ordenagailuaren interfazeak batzea da sistemen sortzaile handien joera. Horra hor, lekuko, Microsoft-ek Windows-ekin, Apple-ek Mac OS-IOS-ekin eta Canonical-ek Ubuntu Linux-ekin egindako garapenak.

Apustuak bazuen arriskurik: ordenagailuko pantaila ukipen-dispositibo baten gisara erabiltzea, bere alderdi elkarreragileak, idazmahai etengabe baten gaineko ezker-eskuineko mugimenduak, interfaze koloretsua eta guzti.

Lehenik eta behin, esan beharra dago hori ez zuela inork ere eskatu, aspaldidanik sagua edo touchpad eskuartearen erabiltzen ohituak gaudelako eta beraz halako interfazeen beharrik ez daukagulako.

Beste problema bat da "Hasiara" botoiaren ohiko kokapena, 1995az geroztik (Windows 95) ezagutzen genuena, desagertu egin dela. Milioika dira sarean aldaketa horretaz kezaketen diren lagunak, ordenagailua erabiltzea deseroso egiten zaielako, eta horixe da, hain zuzen ere, erabilgarritasuna diseinatzen duen edozeinek behar lukeen azken gauza.

Microsoft-ek dioenez, paradigma baten aldaketa bilatu du, eta ahalegin bat eskatu die erabiltzaileei.

Baina protestak hainbestekoak izan dira ezen azkenean atzera egin behar izan baitu. Sistemaren lehendabiziko gaurkotze ofiziala, Windows 8.1 delakoa, hasieraren botoia berreskuratuta lanari ekiteko aukera aurreko bertsioen antzera eskaini duelako egin da ospetsu; funtzionaltasun interesgarri asko ere galdu du, ordea.

Ikusiko dugu azkenean sistemen diseinuak azpiratzen duen erabiltzailea, ala alderantziz. Oraingoz, Microsoft itzulinguruka dabil, kontrako iritziak saihestearren. Izan ere, gogorak entzun ditu; besteak beste, ekile ospetsu eta MIT-eko irakasle Philip Greenspun-ek honako hau bota zuen: Windows 8 dela "gorroto diozunari Eguberritan egingo zeniokeen oparia".

Pablo Moratinos

Marketing online-aholkularia  
3yMedia Comunicación Digital




zure enpresari  
internetetik zabalitzen  
laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza



www.3yMedia.net



Joseba Larratxe, marrazkigilea.



## Katu hegoduna komikia sarean da

Gasteizko Sauré argitaletxeak plazaratu berri du bi irundarrek elkarlanean egindako komikia. *Katu hegoduna* izenburuko istorio misteriotsuaren gidua Yurre Ugartek idatzia da, eta Joseba Larratxeren marrazkiz hornitua. Sarean eskuragarri dago, bai gaztelaniaz bai euskaraz, [koomic.com](http://koomic.com) gunean.

Argitaletxeak gidolariari katu bat protagonista zuen istorioa idazteko enkargua egin zion, artelanen museo bat agertzea ezinbestekoa zela. Emaizta euskal izeneko katu hegodunaren kontakizuna da. Sutsuk Pariseko kafetegi-liburutegi batean ematen du eguna. Alabaina, Karen jabeak albatariarengana antzuzera eraman behar duenean katu desagertzen da. Susmagarri nagusia Gregory da, ohiko bezeroetako bat, Louvre museoko langilea. Hortik aurrera, ezustekoa gertatzen da. Joseba Larratxeri erakargarrien gertatu zitzaizkion elementuak misterioa eta obsesioak izan ziren. "Kontakizunak harrapatzen zaitu antagonista ematen duen pertsonaia protagonista bilakatzen delako". Behin gidua irakurrita, marrazkigileak bere bertuterik behinena baliatuz, lanari ekin zion. "Istorioari ederki egokitze gaitasuna dudala uste dut. Kasu honetan tonoa misteriozkoa zenez, bada, kolore itzalien bidez

atmosfera hori islatzen saiatu naiz". Marrazkien estiloaren inspirazioa biziki miresten duen Ayao Miyazakirengan bilatu du. Haren ildo jarraituz, "kolore lauak erabili ditut, marrazki bizidunen kutsua lortzeko. Trazoaren aldetik garbia da, itxura jubenilekoa", azaldu du Josebak. Lan txukun eta borobila apailatu du, kokalekuen xehetasun guztiak zainduz zein pertsonaien psikologia gardenki islatuz. Hori lortzea ez da, ordea, lan samurra, Josebak, batez beste, bi egun ematen baititu orrialde bat marrazteko. Lana ez zaio falta, "baina motzak dira". "Orain arte, batik bat, aldizkarietarako umore zintak prestatu ditut. *Hegodun katu* da gauzatu dudana komikirik luzeena". Etorkizunari begira Yurre Ugartek eta Josebak fikzio zientziako komiki mardul bat burutzeko proiektua dute. Momentuz, katu hegodunaren zantzuari jarraitzeko gomita luzatu diote hanka biko orori.



**La agrícola**  
J A T E T X E A

Eguneko menuak, asteburukoak, karta,  
mota guztietako ospakizunak

Alzukai, 1. IRUN Tel: 943 244 118



## Lehiaketak

- **ALKARTASUNA DANTZA TALDEAK LOGO LEHIAKETA** antolatuta du. Saria: 400 €. Baldintzak: 18 urtetik gorakoek parte har dezakete. Epea: Azaroak 29. [alkartasunaedt@gmail.com](mailto:alkartasunaedt@gmail.com)



## Bekak

- **PIANO IKASLEENTZAKO YAMAHA BEKAK.**  
Baldintzak: 25 urtetik behera koentzat.  
Beken kopurua: 43. Zenbatekoa: 2.000 €.



Epea: Azaroak 30.

- **EUSKADIKO NEKAZARITZAREN, ARRANTZAREN ETA ELIKADURAREN** sektorean ikertzaile eta teknologo gazteak formatzeko laguntzak.  
Deialdigilea: Eusko Jaurlaritza.

Epea: Azaroak 5.

- **PRAKTIKAK EUROPAR KON-TSEILUAN.**

Baldintzak:

- Lizentziaduna izatea.  
- Ingeles edo frantses maila oso altua.

[www.coe.int/t/jobs/traineeship](http://www.coe.int/t/jobs/traineeship)



## Ikastaroak

- **FRUTA-ARBOLEN INAUSKETA ETA LANDAKETA.**

Lekua: Fraisoro eskola

Zizurkil. Gipuzkoa.

Epea: Azaroak 8.

- **ARGAZKILARITZAREN** eta kamera digitalaren erabileraren oinarriko nozioak ikasi nahi dituztenentzat

Hasiera: azaroak 18



Iraupena: 2 hilabete (32 ordu).

Ordutegiak: astearte eta ostegunetan 10:00etatik 12:00etara, edo astelehen eta asteazkenetan 19:00etatik 21:00etara.

Prezioa: 50 € hilean

Kontaktua: 685 795 309 (Martin)

Helbidea: Salis hirb. 23 behea. Irun



## Profesionaltasun ziurtagiriak

2013 /14ko PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK lortzeko IKASTARROAK - Mendibil Prestakuntza Zentroa.

Profesionaltasun ziurtagiria lortzeko espezialitate

hautakoren batean interesatua bazaude, LANBIDEN eman behar duzu izena.

- Jantziak eta ehunezko artikulua konpontzea eta egokitzea.
- Denbora libreko jarduerarako dinamizatzailea.
- Mikroenpresak sortzea eta kudeatzea.
- Ile-apainketako zerbitzu

osagarriak

- Azalaren eta altzarien garbiketa eraikinetan eta lokaletan.
- Etxeko Enplegua.

Profesionaltasun ziurtagiria lortzeko balio EZ duen espezialitatea:

- 2D eta 3D planoak diseinatzea eta aldatzea

Tel: 943 610. 610

[info@apmendibil.com](mailto:info@apmendibil.com)



## Hizkuntza ikastaroak atzerrian

Atzerrian hizkuntza ikastaroak egiteko plazak 2014ko udan. Alemanian, Frantzia, Erresuma Batuan eta Irlandan egonaldi eta ikastaroak egiteko eskaintza. EAEko funts publikoak sostengatzen diren ikastetxeetan eskaintzen dira plazak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. maila eta Batxilergoko 1. eta 2. maila ikasten duten ikasleentzat. Eskabideak aurkezteko epea: 2013ko abenduaren 2ra.



## IGazte: ordutegi berria

Datozen bi astei begira, IGazte Bulegoak ordutegi aldatuta iragarri du bere arreta zerbitzuetan. Hori horrela, urriaren 28tik hasi eta azaroaren 15era arte ordutegi honetan emango da arreta:

Goizetan, bulegoa 11:00etatik 13:30era egongo da zabalik astelehenetik ostiralera; eta astearte eta ostegunetan, arratsalde ere bai, 17:00etatik 19:30era.



Irungo  
euskarazko  
hamabostekaria

# Irurero

## Irurero non eskura dezaket?

### San Juan

Gaztelumendi  
Manolo  
Sargia  
Udal Liburutegia  
Gazte Informazio  
Bulegoa  
Arano  
Corner  
Fotokop

### Nafarroa hiribidea

Erka material  
elektrikoa  
Kutxa  
Ogi Berri  
Hawai  
Erauskin

### Santiago

Aguirre  
Txingudiko  
Zerbitzuak

Toma Pan y Moja  
Haizea  
Swing

### Urdanibia plaza

Migel  
Ospitale zaharra  
Euskaltegia  
Euskadiko Kutxa  
Eskina  
Lasa harategia

### Dunboa/Palmera -

**Montero/Arbes**  
Osasun Zentroa  
Tahona  
Zura  
Anetxe  
La Agricola  
Amalen paper-denda  
Biribil

### Behobia/Azken

### Portu

Azken Portu  
kiroldegia  
Ogi Berri  
Hawai  
Hizkuntza Eskola  
Eguneko zentroa  
K u t t u n a  
haurtzaindegia

### Kolon ibilbidea eta inguruak

Cadillon Hertz Klinika  
Brasil gozotegia  
Ogi Berri (Kolon)  
Ciaboga  
BBVA  
Kutxa  
Anbulatorioa  
Artaleku kiroldegia  
Virginia kafetegia  
Eduerne kafetegia

Erauskin  
(Luis Mariano)  
Sirimiri  
Turismo Bulegoa  
SAC-HAZ  
Real Union taberna  
Gaudí  
Mendibil ardotea  
Merkairun  
Narrea kafetegia  
Jaiberri  
Luis Mariano  
pentsiodunen etxea  
Hawaii  
Ketan  
Santander bankua  
Solbes  
Oskarbi  
Kutxa  
Euskadiko Kutxa  
Peinart ileapaindegia

### Pio XII

La Tahona  
Ñ kafetegia  
Ogi Berri  
Alvaro paper-denda  
Erauskin

### San Migel

Tabisa  
Caser egoitza  
Jaizibea okindegia  
Senosiain harategia  
Dumboa fruta-denda  
Uranzu azoka  
Gizarte  
Segurantzako  
Institutua  
LANBIDE  
BBVA  
Santander bankua  
Dani urdaitegia  
Erauskin

Sabadell  
Euskadiko Kutxa  
Kutxa  
Sotero taberna  
Baztan taberna  
Ogi Berri-Ogitxu  
Aguirre  
Adriana  
ileapaindegia

### Antzaran

Picking Pack  
Rosi kioskoa  
Amantegui  
Klinika

### Anaka

El Espazio  
Kutxa  
Mariño  
Ogi Berri  
Anaka okindegia  
Washington taberna

Jaizkibel  
janari-denda  
Pablo harategia  
Anaka Berri erretegia  
Covirán Anaka

### Puiana

Tahona  
Puiana taberna  
Ospitalea  
Endanea

### Larreundi

Larrarte harategia  
Toma Pan y Moja  
Pedro arraindegia

### Elizatxo

Martindozenea  
gaztelekua

**Ikasturtean zehar,  
Irungo ikastetxe guztietan**

**Azaroaren letik 30era**

**Erakusketa**

**Plaiiaundiko**

**Ekoetxean**

Foto Aves 2012 izeneko argazki erakusketa.

Astelehenetik igandera: 10:00 - 14:00 / 16:00 -19:00.

**Urriaren 18tik azaroaren 10era**

**Erakusketa**

**Amaia KZn**



"Trenbideak 150 urte Euskadin" izenburuko erakusketa.

**Azaroaren 20ra arte**

**Erakusketa**

**Irun Factoryn**

"Komikia, manga eta konpainia: komikiaren alemaniar kultura berria" erakusketa.



Astelehenetik ostiralera 18:00 - 20:00. Larunbat eta igandeetan: 11:30-13:30.

**Azaroaren 10era arte**

**Erakusketa**

**Diasso Museoa**

Quique Escalanteren oroimenezko argazki erakusketa. Antolatzailea: Alarde Tradizionalaren Batzordea.

**Azaroaren 6an**

**Hitzaldia Ikust-Alaia**

**liburutegian**

19:30ean, hitzaldia Felix Marañaren eskutik: *Fronterizos y disolventes: de la Enciclopedia a Jorge Oteiza*.

**Azaroaren 8tik 10era**

**Azoka Ficoban**

Antzinako objektuen II. Azoka.

**Azaroaren 9an**

**Kontzertua**

**Tunk aretoa**

21:00etan, THE POSIES + NEUMAN eta JUPITER JON.

**Azaroaren 9an**

**Kultur txangoa**

**Baionara**

9:30ean bidaia Baionara, honako toki hauek bisitatzeko: harrisiak, Andre Mariaren katedrala eta Euskal Museoa.

Antolatzailea: Oiasso Museoa.

Prezioa: 29 €.

Informazioa: 943 63 93 53.



**Azaroaren 10ean**

**Kontzertua**

**Amaia KZn**

19:00etan, *In memoriam*, Fernando Etxepareren omenezko kontzertua. Pianoa: Ricardo Requero. Biolontxeloa: Iñaki Etxepare. Sarrerak: Leihatilan. 8 €.

**Azaroaren 13an**



**Ipuin kontalariak**

**Ikust-Alaia**

17:30ean, *Printzesak, sorginak eta elefanteren bat* ipuina, euskaraz.

**Azaroaren 13an**

**Solasaldia**

**Ikust-Alaia**

19:30ean, emakume idazleak: Maria Tena aurrez aurre, Mertxe Tranchek aurkeztua.



**Azaroaren 14an**

**Proiektzioa**

**Amaia KZn**

19:30ean, dokumental baten proiektzioa *Fronterizos y disolventes: de la Enciclopedia a Jorge Oteiza* izeneko programaren barruan.

Dokumentala: Jesus Maria Palaciosen *Casa Vacía*. Aurkezleak: Jesus Maria Palacios eta Emilio Varela arkitektoa.

**Azaroaren 12tik 24ra**

**Erakusketa**

**Laboral Kutxan**

Yana Burinaren pintura erakusketa.

**Azaroaren 30era arte**

**Erakusketa**

**Atrezzo dendan**

OSKAR BENASen pintura fantastikoa: "La gran isla de Creto".



## Sport JAM

**Zer:** EKINTZA ZALEEN AZOKA: kirola, moda, motorra eta turismoa.

**Noiz:** Azaroaren 16an eta 17an.

**Non:** Ficoban

**Sarrerak:** 6 €

## Bertso-gauak

Bidasoako eta inguruetako zenbait bertsoariaren bat-bateko saioa.

**Noiz:** Azaroaren 7an

**Non:** Kabigorriin (Peña kalea, Irun)

**Ordua:** 19:30ean

**Sarrerak:** Doan

**Antolatzaileak:** Irunabar, Irungo Bertsoaren Bilgunea eta Kabigorri.



## Beldurraren pasabidea

**Noiz:** Azaroaren 9an


**Non:** Ficoban

**Ordua:** 18:00 - 22:00

**Sarrerak:** 2 €

**Salmenta:** Azaroaren 5 ean eta 7an Gazte Informazio Bulegoan, 17:00etatik 19:30era. Geratzen diren sarrerak Ficoban bertan salgai egongo dira ikuskizunaren egun berean.

**Antolatzailea:** Santiagoko Deabruak.



# Opereta

## LA VIUDA ALEGRE

Franz Lehár

**AZAROAK 23 eta 24**

**ORDUA 19:00**

**AMAIA K.Z. IRUN**

**SARRERA SALMENTA**

IRUNGO TURISMO BULEGOAN, Kolon Ibilb.

**BENVENITXA**

844 00 12 00 [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

**INTERNET**

[www.licita-lukmariano.org](http://www.licita-lukmariano.org) [www.irun.org](http://www.irun.org)



# La agrícola

Alzukaiatz kalea,1. IRUN. 943 244 118

## Zatoz gosaltzera!



Nahi dituzun kafe eta galleta guztiak  
**1,5 €**

